


Ariketa hauek Ikasbileko 1966027 atazan aurkituko dituzu

1- Entzun aurretik

1.1 Oskar inguruan badabil...



Jon eta Jone elkarrekin ateratzen hasi dira, baina Jonek ez du nahi senar ohiak elkarrekin ikustea. Irakurri whatsapppez izan duten elkarrizketa eta saiatu zer gertatuko den asmatzen. Ondoren, arrazoitu aukeratu duzun hipotesia. Ikasgelan, zuen proposamenak eta arrazoiak partekatuko dituzue.

- JONE: Gaur Niko eramango dut igerilekura eta gero bere aita etorriko da haren bila.
- JON: Igerilekura ez joateko esan nahi didazu ezta?
- JONE: Ez da hori. Baina zurekin ez naiz egongo Oskar inguruan badabil.
- JON: Ba nik ere badut igerilekura joateko asmoa. Zuk ikusi

Zer gertatuko ote da?.

- Jon ez da joango igerilekura Jonek beranduago hala eskatuko diolako
- Jonek hobeto pentsatuko du eta azkenean bere senar ohiak aurkeztuko dio Joni
- Oskarrek elkarrekin ikusiko ditu biak eta Jonek azalpenak eman beharko ditu
- Jon aldageletan ezkutatuko da Oskarrek ikus ez dezan
- Besterik: _____


Eman zure hipotesiaren arrazoia:

Adibideari erreparatu:

- Nire ustez Jon ez da igerilekura joango. Whatsapppeko mezuan antzematen da oso minduta dagoela eta nahiago izango du Jone aurrez aurre ez ikustea.
-

1.2 Igerilekuan




Partekatu ikaskidearekin  ariketan aukeratu duzun hipotesia eta arrazoia. Ondoren, entzun elkarrizketa eta egiaztatu egin duzuen. Espero al zenuten hori gertatzea? Entzundakoaren arabera, zein izan da zure ustez Joneren jokabidearen arrazoia?



2- Entzun bitartean

2.1 Galderei erantzun



Segidan dituzu elkarrizketari buruzko hainbat galdera. Entzun eta aukeratu erantzun egokia. Ondoren, alderatu ikaskidearekin biok gauza bera erantzun duzuen jakiteko.

Zergatik dago minduta Jon?

- Bien arteko harremana ezkatuan eraman behar dutelako
- Ez duelako Nikorengana hurbiltzen uzten
- Niko tartean dagoenez, beti galtzaile aterako delako

Igerilekuan zein izango da elkar ikusteko unerik egokiena?

- Oskar Nikoren bila joan aurretik
- Oskarrek Niko eramandakoan
- Oskar eta Niko Jonerekin elkartutakoan

Zer gertatzen da Oskarren oraingo neskarekin?

- Joneri ez zaio batere ondo iruditzen Oskar Vanessarekin egotea Niko tartean dagoenean
- Oskar Vanessarekin ateratzea guztiz normala iruditu arren Jonek nahigo du ezer ez esan Joni buruz.
- Jonek ez du ezer jakin nahi Vanessari buruz, horregatik ez dio Jon aurkeztu nahi

Zein izango da astebururako plana?

- Zinemara joateko asmoa azaldu du Jonek baina ez dira joango Nikorekin egon behar duelako
- Jon kanpora joango da eta Jone, berriz, zinemara
- Jone saiatu da zinemara joateko plana egiten, baina Jon haserre dago eta ez du bere gonbidapena onartu




Zertarako deitu dio Oskarrek Joneri?

- Vanessarekin asteburu pasa egiteko plana egin du eta Nikorekin ezin dela gelditu esateko
- Nikoren poltsan hortzetako eskuila sartu ote duen jakiteko
- Nikoren hortzetako eskuilaren aitzakian, igerilekuan norekin zegoen jakiteko.

3. ENTZUN ONDOREN

3.1 Banandu ondorengo bikotea



   Banandu ondoren, zalantza eta kezka ugari izaten da bikotekide berriarekin hasi eta lehengoarekiko izan behar den jokaera dela eta. Are gehiago seme-alabak tartean direnean. Ariketa honetan egoera horri buruz arituko zarete taldean zuen iritzia emateko. Hasteko, egizu gaiari buruzko gogoeta txiki bat eta zerrendatu bikotekide ohia harreman berriaren jakitun egitearen alde onak eta txarrak

Alde onak	Alde txarrak
• _____	• _____
• _____	• _____
• _____	• _____
• _____	• _____
• _____	• _____
• _____	• _____
• _____	• _____

Orain, erreparatu entzun berri duzun elkarrizketari eta pentsatu zuk zer egingo zenukeen Joneren lekuan egongo bazina. Senar ohiari bikotekide berria aurkeztuko zenioke? Zergatik?

Azkenik, partekatu zure iritzia gainerako ikaskideekin. Adostasunik ba al dago zuen artean?